

B

U D A L TXOSTENA

2018



Bilboko Udala
Herritarrentzako Arreta eta
Partaidetza Saila
Ernesto Erkoreka pl. I 2.
48071 Bilbao
www.bilbao.eus



**KULTUR
POLITIKEN,
EUSKARAREN,
HEZKUNTZAREN,
GAZTERIAREN
ETA KIROLAREN
KOORDINAZIOA**

8.2.

EUSKARA ETA HEZKUNTZA

EUSKARA

Euskararen normalizazioa lortzea: hau da, gure hizkuntzaren ezagutza eta batez ere erabilera gehitzea da xede nagusi, esparru bitan: udalerrian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta udal administrazioan Euskararen Erabilera Plana.

Helburu nagusiak hauek dira:

- ▶ Udal administrazio elebidunerantz, euskara herritarrentzako zerbitzu hizkuntza gune guztietan ziurtatzea.
- ▶ Egunerako udal jardunean euskara lan-hizkuntza bihurtzeko bidean, hizkuntza eskakizuna lortua duten langileei lanerako trebatze saioak eskaintzea eta euskara langai eta bide izan dezatela lagundu.
- ▶ Udalak jendaurrean duen irudi korporatiboan eta kontratazio administratiboan arloan hizkuntza irizpideak finkatuta berauek betearaztea, euskararen presentzia eta eskakizuna handitze bidean.
- ▶ Derrigorrezko eskolaldian ari diren ume eta gaztetxoei eskola barruko programen osagarriak, batez ere ikasgelaz kanpoko jarduerak eskaintzea erabilera ez-akademiko naturalagoa sustatzeko.

- ▶ Gazteen ezagutza erabilera bihurtu dadin, beraien neurriko eta gustuko eskaintza kaleratu, teknologia berriei bereziki erreparatuta.
- ▶ Transmisioari dagokionez, umea mundura datorrenetik euskal inguru iraunkor baten beharra azpimarratu sentiberatze kanpainen bidez.
- ▶ AENOR Zerbitzuen Agiriari eustea.

Burututako ekimen nagusiak hauek izan dira

UDAL ADMINISTRAZIOA

Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Plana (2018-2022) onartu ahal izateko Sailak lanean jarraitu izan du 2018an.

Lehenengo eta behin, IV. Planaren (2013-2017) balorazioa egin du. Informazioa eskuratzeko teknika ezberdinak erabilita, gerora ondorio nagusiak identifikatzeko lagungarri izan diren emaitza kuantitatiboak eta kualitatiboak eskuratu ditu.

Ondoren, V. Planaren (2018-2022) zehaztasunak identifikatu dira xede nagusia Bilboko Udalean hizkuntza ofizial bien arteko berdintasunera jotzea dela.

Bikaineko Erreferentzia Marko Estandarreki lerrokatuta, helburu nagusiak ezarri dira, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza ardatz hartuta, bai eta, helburu nagusi horiek lortzeko normalizazio-ekintzak ere.

Bilboko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Planaren



kudeaketan urratsak eman nahi dira plan hau benetan udalaren kudeaketa orokorraren barruan txertatzen joan dadin, eta sail eta zuzendaritza guztien erantzukizuna izan dadin, betiere bakoitzari dagokion erantzukizun-eremuaren barruan. Azkenez, Sailak lanean dihardu, Giza Baliabideen Zuzendaritza lankide duela, planaren gestioari eta planifikazioari azken ukituak ematen.

Itzulpen zerbitzua udal bulegoek -sailetakoak eta udal enpresetakoak- sortzen duten dokumentazioa euskalduntzeko edo gazteleartzeko zerbitzua da, bai eta euskarazko testuen zuzenketarako ere. Unitate elebidunetako langileentzat itzulpena neurri osagarria da, eta sistematikoa beste guztientzat.

Udalerria

Hizkuntzaren transmisioa

Luzatu egin da Euskara Sustatzeko Ekintza Plana Bilbon (2014-2017) planaren indarraldia. Planaren ardatz nagusiak eta horiei erantzuteko ekimen hauek antolatu dira:

Euskararen jabekuntza:

Zinea euskaraz: Tinko eta Irudi Biziak elkartearen eskutik, eskola-ordutegiaren barruan eskaini dira.

Euskal Coaching: Gazteen aisiaren jarduera garrantzitsuenak diren kirola eta teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzea helburu duten tailerrak eta hitzaldiak antolatu dira hainbat ikastetxetan.

► Hitzarmenak:

- Euskal jolasak, bertoko jolasen ondarea gaztetxoentzat: Euskal Herriko Ikastolekin batera, programa eskaintzen die Lehen Mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei. Hezkuntzaren eremu formalean ez ezik, informalean ere euskararen erabilera sustatzen du.
 - Mundu bat bertso: Bizkaiko Bertsozale Elkartearekin, Bizkaiko Ikastolen Elkartearekin eta Bizkaia Irratiarekin elkarlanean, bertsoaritza sustatzeko jarduera da, 32 ikastetxetan asteroko saioak eta irrati programa antolatu dira.
 - Bizkaiko Guraso Elkartearekin eta Euskal Herriko Ikastolekin, ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko ikasleen eta gurasoen artean.
- Dirulaguntzak: Ikastetxeentzako eta guraso elkarteentzako ikastetxeen eremuan euskararen aldeko ekintza kulturalak egiteko eman dira:
- Mintzakide, Praktikatuta eta bizi, Berbalagun. Aisialdian mintzamenaren lantzeko taldeak antolatu dira euskaltegien laguntzarekin.





- Euskara ikasteko laguntzak: Honako talde hauei eman dira: derri gorrezko eskolaldian seme-alabak dituzten gurasoek, aisialdi eta kirol begiraleek eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dituztenek, guztira 299 pertsona.

Euskararen erabilera:

- Biribilko, Bilboko merkataritzan euskara sustatzeko plana: Helburuetako bat da euskararen erabilera adeitsua, atsegina eta merkataritzaren ezaugarriekin bat datorrena. Formakuntza saioetan 148 lagunek hartu dute parte. Ekimena Bilbao Ekintza udal enpresaren bitartez, Bilbao Dendak elkartearen eta HA-BEren laguntzarekin.
- Ikusi eta Ikasi: Aisia, kultura eta heziketa uztartzen dituen kultur zirkuitua da, haur bilbotarrei euskaraz jostatzeko aukera eskaintzea helburu duena eta barruti guztietara heltzen dena. Edizio honetan tailer gehiago sartu dira programan. Era berean, Bilboko sortzaileen alde egin nahi da, kalitatea asko zainduta. Euskara Elkartearen Topagunearekin hitzarmen bidez egindako ekimena izan da.

- Harrapazank: 8 eta 18 urte bitarteko gazteen artean kultura, sormena eta euskara sustatzea programaren helburua bere amabigarraren edizioan. Hauexek izan dira programako ardatzak: Distirazank talentu lehiaketa eta Sortuzank eta Bilrobot tailerrak. Ekimena Euskara Elkartearen Topagunearekin hitzarmen bidez egin da.
- Darabilbo: Bilboko barruti guztietan euskararen erabilera zuzena suspertu nahi duen programa da. 1.268 pertsonen parte hartu dute antolatutako 64 ekintzetan (tailerrak, bisita gidatuak...). Bilboko euskaltegien sarearekin elkarlanean burutu da.
- Elkarateentzako diru laguntzak, programak edo zerbitzuak euskaraz eskaintzeko: Sailak lankidetzan dihardu hitzaldi-zikloak, aisialdi-jarduerak, ikastaro bereziak, argitalpenak, txangoak, programa informatikoak, literatur lehiaketak zein jarduera osagarriak antolatzen dituzten Bilbo guztiko talde eta elkarteekin.

Euskararen elikadura:

- Jendaurreko irakurraldia: Bilbo Zaharra euskaltegiarekin elkarlanean, Txomin Agirre idazlearen Kresala obra osoa irakurri zuten ekainaren 7an Arriaga Antzokian gizarte sektore guztietako ordezkariak. Ekimen honen aurretik gaian sakontzeko hitzaldiak antolatu ziren idazlearen eta obraren inguruan.
- Mikoleta ipuin lehiaketa: Eskola-umeei zuzendua, parte-hartzaileen adinaren arabera lau kategoriatan banatzen dira idazlanak. Saritutako lan guztiekin liburua argitaratu eta parte hartzaile guztiei bidali zaie.
- Publizitatea: Egitasmoen publizitatea eskaintzen da euskal hedabideetan, batez ere Bilbokoetan.
- Hitzarmenak: Euskaltzaindia eta Suspergintzarekin sinatu dira.

Euskararen aldeko motibazioa:

Bizkaiko beste udalerri batzuekin batera eta Alkarbide bilgunearen koordinazioarekin, hurrengo kanpainak bultzatu dira:

- Eman giltza: Ume jaioberriak dituzten gurasoei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina honen helburua familia-giroan euskararen erabilera sustatzea da.
- Matrikulatu D ereduari: Eskolan sartzeko adina duten umeen (2 urtekoak) gurasoei zuzendua, irakaskuntzaren bidez euskararen transmisioa egiteko garrantziaz sentsibilizatzeko eta euskarazko D eredua sustatzeko.
- Nahi dudalako: DBHko 4. Mailako ikasleei informazioa bidaltzen zaie etxera batxilergoko eta lanbide heziketako ikasketak euskaraz egiten jarrai dezaten animatzeko.
- Euskararen Nazioarteko Eguna: Ekitaldi ofiziala antolatu zen azaroaren 30ean, Verdes liburutegia omendu zen, izan ere, zeregin oso garrantzitsua bete zuen euskararen eta euskal kulturaren zabalkundea egiteko orduan, urte zail haietan, noiz ere euskarazko liburuak eta diskoak saltzea gauza nekeza baitzen. Aldi berean, Bilboko Udalak bat egin du Hizkuntza Politika Gaietarako Herri Administrazioen Koordinazio Batzordearen adierazpen instituzionalarekin. “Euskara auzolana” izenpean, euskararen erabilera aurrera egiteko kontzientzia piztu nahi da herritarrengan, euskara urteko 365 egunetan erabiltzeko.
- Euskaltegien matrikulazio kanpaina: ikasturtearen hasieran bilbotarrak animatzen dira euskara ikasi dezaten publizitate kanpainaren bitartez.

EUSKARAREN ZABALKUNDEA

- Berbagunea: Euskararen erabilerari dimentsio publikoa eman nahian antolatu da Bilboko Azkuna Zentroan. Egun osoko jarduna azaroaren 27an, 1.600 lagun lau txandatan banaturik, emandako gai batzuen inguruko eztabaida izan dute seiko talde aldakorretan.

► Hitzarmenak:

- Azkue Fundazioa: Bilboko Udala Azkue Fundazioaren partaide da, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskaltzaindia, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatearekin batera. Euskararen Etxeak burututako sustatze zeregin asko Azkue Fundazioaren barruan lotu dira, munduan zehar euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko asmoz, ezagutzen ditugun teknologiarik aurreratuenekin.
- Labayru Fundazioa: Eskura duen ondare historikoa erabiltzeko, kultur ekitaldiak arte adierazle (1920-1990) erakusketaren barruan hainbat ekintza antolatu dira herritarrei euskal kulturaren ondore horren atal bat eta Bilboko euskaren historia hurbilaren egoera erakusteko.

EKIMEN BEREZIAK

Bilbon euskaraz bizi (Euskaraldia): Azaroaren 23a eta abenduaren 3a artean 11 egunez burututako herri-ekimen horretan Bilboko herritarrak ere buru-belarri murgildu dira; izan ere, 17.108 lagun izan dira izena eman dutenak (10.476 ahobizi eta 6.632 belarri-prest, hain zuzen ere).

Berton Bilbo filma: Aitor Zuberogoitia eta Pedro Zuberogoitia anaiek XX. mendean euskarak eta euskalgintzak Bilbon izan duten historiari buruzko Bertan Bilbo liburua oinarri hartuta, filma sortu eta hitzaldiak antolatu dira Bilboko udaltegietan.

Bizikletan ere... lehenengo berba euskaraz: 2017 urteko San Tomas egunerako argitaratutako “Hirian ere...lehenengo berba euskaraz” programari jarraipena emateko, 2018ko martxoaren 11n ere “Bizikletan ere...lehenengo berba euskaraz” foiletoa argitaratu zen Bilbao-Bilbao bizikleta martxaren 30. urteurrenean.

B-tuber: Izan euskal Youtuber. Azkue Fundazioaren hitzarmenaren esparruan, ikastaroak antolatu dira gaztetxoek artean hain arrakastatsua den Youtube formaturako bideo produzioan guztia ikasteko.

ADIERAZLEAK

Eskola ordutako programetan parte hartu duten ikasleak:	13.151
Mikoleta ipuin lehiaketara aurkeztutako ipuinak:	780
Antolatutako sentiberatze kanpainen hartzaileak:	7.630
Euskara ikasteko laguntzaren onuradunak:	299
Ikusi eta Ikasi programaren ikusleak:	5.243
Harrapa Zank programan ikusleak:	1.750
Merkataritza Planean parte hartu duten establezimenduak:	4.389
Diru-laguntzetan onartutako programak:	111
Itzulitako testuen kopurua:	2.186.201 hitz
Berariazko trebakuntzan parte hartu duten langileak:	100

**HEZKUNTZA**

Kalitatezko hezkuntza guneak eta zerbitzuak garatzea da xedea.

Helburu nagusiak hauek dira:

- Hezkuntza-zerbitzuei dagokienez:
 - ◆ Elkarriketa eta bizikidetza sustatzea hezkuntzaren funtsezko elementu gisa.
 - ◆ Integrazioa sustatzea, gizarte eta hezkuntza errefortzuko tailerrak eginez eta ikasle etorkinen harrera hobetuz.

